

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3405

*1196/2020 EBAZPENA, uztailaren 15ekoa, Ezkerraldea-Enkarterri-Cruceseako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena. Honen bidez, Maria Begoña Belarra Tellechea andreak lanpostua utzi du, Ezkerraldea-Enkarterri-Cruceseako Erakunde Sanitario Integratuko Santurtzi-Kabiezeseko Lehen Mailako Arretako eta Arreta Espezializatuko Unitateko gainbegirale gisa, beste lanpostu bat betetzeko.*

Ezkerraldea-Enkarterri-Cruceseako ESiko zuzendari gerentearen irailaren 21eko 1724/2017 Ebazpenaren bidez, Maria Begoña Belarra Tellechea andrea Ezkerraldea-Enkarterri-Cruceseako ESiko Santurtzi-Kabiezeseko Lehen Mailako Arretako eta Arreta Espezializatuko gainbegirale izendatu zen.

Ikusirik ekainaren 26ko 8/1997 Legea-Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua Osakidetza Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen, eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Gerentzia honek hauxe

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Maria Begoña Belarra Tellechea andrea Ezkerraldea-Enkarterri-Cruceseako ESiko Santurtzi-Kabiezeseko Lehen Mailako Arretako eta Arreta Espezializatuko Unitateko gainbegirale lanpostutik kentzea eta egindako lanagatik eskerrak ematea, hemendik aurrera beste lanpostu batean jardungo baitu.

Bigarrena.– Ebazpen honek ondorioak izango ditu egun honetatik aurrera: 2020ko uztailaren 15a.

Hirugarrena.– Ebazpen hau jakinaraztea interesdunari.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza zuzendari nagusiari, ebazpen hau EHAA n argitaratzen den hurrengo egunetik hilabeteko epean.

Barakaldo, 2020ko uztailaren 15a.

Absentziagatik, zuzendari gerentearen urtarrilaren 1eko 3/2015 Ebazpen bidez.

Ezkerraldea-Enkarterri-Cruceseako ESiko zuzendari medikoa,  
EDURNE OMAETXEBARRIA LEGARRA.